



ERAIKINAREN DATUAK

Izena eta aldaerak: Elenategi-Berri.

Auzoa, udalerrria: Martutene (Altza)., Donostia.

Dolarearen kokapena: Etxearen atzeko (ipar-ekialdeko)eraikinaren behe solairuan.

Jabea: Manolo Mendiburu.

DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK

Kronologia: XX. mendekoa.

Iraunaldia: 1990 urtearen inguruan egin zen sagardoa azkenekoz.

Zenbait datu: Askaren kantaleran jartzen duen moduan 1963an muntatu zuten Altzako Buenabistatik ekarritako toleara.

Egungo erabilera: Trastelekua.

Kontserbazio egoera: Hala moduzkoa.

TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK**Dolare-prentsa:**

Hormigoizko askaren erdian zutitutako ardatzean bi abiaduratan mugitzen den buruak osatzen du. Polea eta uhalen bidez, motor baten indarra baliatzen da torloju amaigabea eta koroa-horzduna mugitu eta ardatz hariztatuan gora eta behera egiteko. Zurezko urkaren ordeztuzko altxairuzko perfilez indartutako habea du.

Dolarearen osagarriak:

- Trakzio mekanikodun matxaka porlanezko egituratik behera sagarrak tolbara bideratzeko zurezko hodiarekin.
- Porlanezko egitura tolairearen albo batean, aska bera baino maila altuagoan. Bertan sagarrak pilatu eta matxakara bideratzen ziren.
- Txorrotrak, giltza edo trumukuak eta patsolak.
- Upela.

Argazkiak: 30.01, 30.02, 30.03.

GAKO-HITZAK

Trakzio mekanikoa, matxaka, Donostia, upela.

OHARRAK

- Tolarea Elenategi-Berrin muntatu baino lehen Elenategi baserrian jotzen zuten sagarra, sagardotegia baitzen hura, auzoko Zapiain eta Marijuandegiren moduan.

GALDETEGIA

Informatzailea: Manolo Mendiburu.

Datu bilketaren egilea: A.Agirresarobe, J.Tellabi

Datu bilketa data: 2010eko apirilaren 21a